

**2016ko Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 8.
Jaialdia
‘INVISIBLE EXPRESS’**

Ikus-entzunezko tresnak balio positiboak helarazteko tresna gisa erabil daitezzen eta unibertsitateko komunitatean erreferentziazko eredu solidarioak izan daitezzen, Kultura, Communication y Desarrollo "KCD" GKEak, “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak eta UPV/EHUko Lankidetzak Bulegoak abian jarri dugu, beste urte batez, “INVISIBLE EXPRESS” lehiaketa.

‘INVISIBLE EXPRESS’ lehiaketaren oinarriak
Deialdigileak: Kultura, Communication y Desarrollo KCD-GKE eta
UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa

1. **2016ko irailaren 27tik urriaren 6ra** egingo da “INVISIBLE EXPRESS” film laburren 4. lehiaketa, eta **UPV/EHUko ikasten diharduten pertsona guztiek** parte hartu ahalko dute.
2. Banaka edo taldeka parte hartu ahalko da.
3. Lehiaketan parte hartzeko, izena eman behar da aldeaz aurretik, info@kcd-ongd.org helbidera mezua bidalita. Honako datu hauek eman behar dira:
 - Aurkeztu den pertsonaren edo taldekideen izen-abizenak eta NANA.
 - Taldearen arduradunaren telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
 - Ikasketak egiten ari diren UPV/EHUko ikastegia eta ikasturtea.
4. **Izena emateko epea 2016ko irailaren 1etik 24ra arte izango da.**
5. **Irailaren 26an** emango da film laburrak egiteko **gaiaren berri**, campus bakoitzeko zentro batean emango den informazio hitzaldi batean. Izena emanda dauden ikasleei aldeaz aurretik jakinaraziko zaie noiz, non eta zer orduetan izango den.

Partaideei honako hauek bilduko dituen gutun azal lakratu bat emango zaie: talde bakoitzaren txartelak, film laburretan jorratu beharreko gaia eta lanak amaitzean aurkeztu beharreko orri bat.

6. Film laburrak **2016ko irailaren 27tik urriaren 6ra** bitartean egingo dira, eta erakundeak emandako gai komuna jorratuko da. Egindako **film laburrak urriaren 6ko (osteguna) 23:59ak baino lehenago bidali** beharko dituzte.
Ordu horretatik aurrera bidalitako lanek ez dute izango saria lortzeko aukerarik.
7. Film laburrek ez diote kalterik egingo irudikatutako pertsonen edo kolektiboen irudiari eta duintasunari.
8. Film laburrak **helbide elektronikoaren bidez bidaliko dira**, eta zuzenean deskargatzeko lotura bat atxiki ahal izango da, Dropbox, Wetransfer, Vimeo edo Youtube atarrietakoa.
9. Film laburrekin batera, taldeak bete beharreko **partaidetza orri bat** bidaliko da. Partaidetza orri hori bidaltzen ez bada, film laburra ez da aurkeztutzat joko.
10. Aurkeztutako film labur bakoitzak **gehienez ere 3 minutu** iraungo du, kredituak barne.
11. Lanak **orijinalak eta argitaragabeak** izango dira. Erakundeak ez du bere gain hartuko egile eskubideei dagokienez gerta daitezkeen arau hausteen erantzukizunik.
12. Film laburrak **euskaraz** zein **gaztelaniaz** aurkeztu ahalko dira.
13. Talde bakoitzak **obra bakarra** aurkeztu ahalko du.
14. Erakundeak lanak bazter uzteko eskubidea du, baldin eta hautaturiko gaiarekin zerikusirik ez badute, kalitatezko baldintza teknikoak betetzen ez badituzte edo beste edozein arrazoi dela-eta zalantzazkoa bada lehiaketaren baldintzak betetzen dituztela.
15. Film labur irabazleek **sari** hauek jasoko dituzte:
 - **Epaimahaiaren Saria: 1.000 €**
 - **Ikusleen Saria: 500 €**
16. Epaimahaiaren Saria hautatzeko, KCD GKEari eta UPV/EHUri lotutako hiru pertsona izendatuko dira (% 60 emakumeak izango dira).
17. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
18. Epaimahaiak eman gabe utz dezake saria.

19. **Ikusleen Saria** emateko, zenbatu egingo da film laburrek KCD-GKEaren Youtubeko kanalean **urriaren 12ko 10:00etatik** (argitaratzen direnetik) **urriaren 18ko 19:00etara arte** (botoak zenbatzen amaitzen denera arte) lortu duten “ATSEGIN DUT” kopurua.
20. Ez dira zenbatuko kontu faltsuen edota jarraitzaileak edo “atsegin dut” gehiago erosteko plataformen bidez emandako “ATSEGIN DUT”-ak, ezta programaturiko edozein automatismo motaren bidez lortutakoak ere. Erakundeak baliogabetzat jo dezake saria, amarru horiek oro har erabili direla egiaztatzen badu.
21. Erakundeak ez du bere gain hartuko Youtuberaren funtzionamenduak sor ditzakeen gorabeheren erantzukizunik.
22. Parte hartzaileek **erakundeari emango dizkiote film laburren komunikazio publikorako, erreprodukzioarako eta banaketarako eskubideak.**
23. Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du hemen adierazitako **oinarriak onartzen** direla.

Lehiaketari buruz besterik jakin nahi izanez gero, interesdunak erakundearekin harremanetan jar daitezke, 94 602 46 68 telefono zenbakira deituta edo info@kcd-ongd.org helbide elektronikora idatzita.